



Euskal Kultur  
Erakundearen  
laguntzaz egindako  
gehigarria

## Errakozu ene partez mila goraintzi Sarako 'Muziu' Barnetxi (1)

Errakozu ene partez mila goraintzi zure adiskide: "muziu" Barnetxi Sarakoari

Ongi pena dudala segurki,  
Egundaino ez dudala hura baizik utzi!  
Satifatu gabe ederki!  
Kausa zer den berak badaki...  
Neskatala gaztekin omen dela bizi,  
libertituz ederki.  
Oraino ez da libertitu aski  
Ez eta're ez ditu kitatu're naski.  
Haren begiak hain dire argi,  
Izarra iduri!  
Eta koloriak, ehun ostoko arrosa  
bezin gorri.  
Neskatala gazten ilusi garri...  
Karesatzen ditu ederki,  
Denboraz... Balia bedi...

(1) Leheteko orduko nagusiari eskainiak, ene ustez.



**BERGARA, Ganix**  
«Txistuko» eskainiak

Airea:  
Aitak eman zerautan

**Senpertar gazte**  
**batek, 1936an.**  
**Jan Pier SOUDRE**  
**IXTILARTE-ren**  
**eskutik**



## Sortu naiz Iparrean

**Uso ume batek kondatzen du bere haurreko bizia, bere aita amen erdian; amak emaiten dazko zonbeit kontseilu egin beharko duen udazkeneko piaia luzeari buruz.**

- Sortu naiz iparrean, udaren hastean,  
Uso ume bakarra ohantze batean  
Aitamek naute hazi, aitamek naute hazi,  
lumatu artean!  
Zoriona gozatuz hiruek batean.
- Mundurats agertzean bilhuzia nintzen  
Amattok hegalpean ninduen berotzen.  
Hazkurriaren biltzen, hazkurriaren biltzen,  
Aita zen ibiltzen...  
Nork erran ni ttikian zenbat gosta naizen!
- «Zure hegalak aski lumatu orduko,  
Hosto eror denbora, zauku etorriko.  
Iparretik Hegora, Iparretik Hegora,  
gare airatuko;  
Nik lagunduz bidean etzare galduko».

4 Iruzkia zenean sortzera apaldu,  
Ihiztariak zuen sarea zabaldu.  
Ez da behar itsua, ez da behar itsua,  
gidarizat hartu;  
ez bertzen erranari sobera fidatu.

5 Zonbat uso oinezko... hegalik gabeko  
Ihiztariak aiher hetaz jabetzeko!  
Kasu egin dezaten, kasu egin dezaten  
ez naiz ixilduko;  
Bertzela saretara tuztela bilduko!

Airea:  
Iruen hari nuzu  
**BERGARA,**  
**Ganix «Txistuko»**  
**eskainiak**



## Biba Senpertarrak

- Senpertarrek pilota dute arras maite  
Ohore frango ere hortik biltzen dute  
Aurten baituzte,  
bi mutil gazte,  
bi plekari haundi  
Champion de France direnak:  
Audet-Behastegi
- Orroitzeko partida senpertarrendako  
Atarratzeko hura bide da izango  
baziren asko,  
joanak goixko,  
ikusteko ongi,  
Champions ateratzen Audet-Behastegi
- Aintzina Behastegik, gibeletik Audet  
Elgar ongi aditzen zoin den eder, laket  
Aitor dezaket  
Nola norbaitek  
zinez azkarregi  
suertatu zaizkote, Audet-Behastegi
- Partida finitu-ta, plazaren erdira  
Medailak eskuetan Ybar zen atera  
Medail bedera  
Musu bedera  
zioten ezarri  
Oihu eginez biba:  
Audet-Behastegi.
- Senperen plekariak betitik badire  
Teofil, Santiago, eta Xabatene  
Sein, Betriene  
Peru, Nottari  
Iratzoki ere  
hoiekien ta bertzekin: Audet-Behastegi.
- Gaur, oraino lur huntan izan bazen Matxin  
goretxiko zintuzten bere ditxoekin  
ordain ni naiz jin,  
bi pertsurekin  
koblar txarregi  
maneran kantatzeko, Audet-Behastegi.